

**“FUNDACION DEL MUSEO MARITIMO RIA DE BILBAO – BILBOKO ITSASADARRA ITSAS  
MUSEOA FUNDAZIOA”-REN KONTRATAZIOKO BARNE-JARRAIBIDEAK**

Aurkibidea

|  |    |
|--|----|
| I. XEDAPEN OROKORRAK.....  | 1  |
| 1.- APLIKAZIO EREMUA .....   | 1  |
| 2.- KONTRATU-MOTAK.....  | 2  |
| 3.- KBJ-ETAN ARAUTUTAKO KONTRATUEN IZAERA ETA APLIKAGARRIA ZAIEN ARAUBIDE<br>JURIDIKOA ..... | 2  |
| 4.- KONTRATUKO ALDERDIAK .....   | 2  |
| 4.1. KONTRATAZIO-ORGANOAK.....   | 2  |
| 4.2. KONTRATAZIO-MAHAIA .....  | 2  |
| 4.3. ENPRESA KONTRATISTAREN GAITASUNA .....  | 3  |
| 5.- BERMEAK ESKATZEA .....   | 3  |
| II. MUSEOAK ESLEITUKO DITUEN KONTRATUAK.....   | 3  |
| 6.- KONTRATAZIOKO PRINTZIPIO OROKORRAK .....   | 3  |
| 7.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA. ....   | 5  |
| 8.- MUSEOAK IZAPIDETUKO DITUEN KONTRATAZIO-PROZEDUREN ARAU ERKIDEAK.....                     | 6  |
| 8.1.- Kontratuaren prezioa.....  | 6  |
| 8.2.- Kontratuaren prezioa ordaintzea.....   | 6  |
| 8.3.- Kontratuaren iraupena.....   | 6  |
| 8.4.- Museoaren betebeharrak .....   | 7  |
| 8.5.- Enpresa kontratistaren betebeharrak.....   | 7  |
| 8.6.- Kontratua aldatzea.....  | 10 |
| 9. KONTRATAZIO-PROZEDURAK.....   | 11 |
| 9.1.- Museoaren kontratuei aplikatzeko mugak .....   | 11 |
| 9.2 Zuzeneko esleipena .....   | 12 |
| 9.3 Prozedura murriztua .....  | 12 |
| 9.4 Prozedura irekia .....   | 13 |
| 9.5 Prozedura negoziatua .....   | 14 |
| 10. ENPRESA KONTRATISTA HAUTATZEA.....   | 15 |
| 11. KONTRATUA FORMALIZATZEA .....  | 15 |
| 12.- INDARREAN SARTZEA.....  | 16 |
| 13.- GEROAGO ALDATZEA .....  | 16 |

I. XEDAPEN OROKORRAK

1.- APLIKAZIO EREMUA

Jarraibide hauek aplikatuko zaizkie Museoak hirugarren batzuekin egiten dituen kostu bidezko kontratu guztiei, hori eragozpena izan gabe kontratu bakoitzerako bereziki taxutzen diren baldintza-agirietan xedatutakorako.

Jarraibide hauek aplikatzen salbuetsirik daude entitate edo erakunde pribatuekin egitekoak diren kontratu eta lankidetzak-hitzarmenak, xedezat jardura jakin bat egitea dutenean.

## 2.- KONTRATU-MOTAK

- Obra-kontratuak, hau da, obra bat gauzatea xedezat duten kontratuak, obra bakarrik zein proiektuaren idazketarekin batera.
- Hornidura-kontratuak, hau da, produktuak edo ondasun higigarriak eskuratzea, haien finantza-errentamendua, edo errentamendua –erosteko aukerarekin zein gabe– xedezat duten kontratuak.
- Zerbitzu-kontratuak, hau da, jardura bat aurrera eramatean dautzan edo obra edo hornidura ez den beste emaitza bat lortzera bideraturik dauden prestazioak xedezat dituzten kontratuak.

## 3.- KBJ-ETAN ARAUTUTAKO KONTRATUEN IZAERA ETA APLIKAGARRIA ZAIEN ARAUBIDE JURIDIKOA

Museoak egiten dituen kontratuak kontratu pribatuak dira beti.

## 4.- KONTRATUKO ALDERDIAK

### 4.1. KONTRATAZIO-ORGANOAK

Kontratazio-organoak honela ezarriko dira:

#### 1. Zerbitzu- eta hornidura-kontratuak:

| ZENBATEKOA          | KONTRATAZIO ORGANOA          |
|---------------------|------------------------------|
| 50.000 € bitarte    | Zuzendaritza                 |
| 50.001 €– 100.000 € | Zuzendaritza / Presidentetza |
| 100.001 €-tik gora  | Patronatua                   |

#### 2. Obra-kontratuak:

| ZENBATEKOA           | KONTRATAZIO ORGANOA          |
|----------------------|------------------------------|
| 40.000 € bitarte.    | Zuzendaritza                 |
| 40.001 € < 300.000 € | Zuzendaritza / Presidentetza |
| 300.001 €-tik gora   | Patronatua                   |

### 4.2. KONTRATAZIO-MAHAIA

Kontratuaren izaera dela-eta, komenigarria denean, kontratazio-mahai bat eratu ahalko da; hura arduratuko da aurkezturiko eskaintzen balorazioaz, eta kontratuaren enpresa esleipenduna proposatuko dio kontratazio-organoari.

Kontratazio-mahaia mahaiburuak, idazkariak eta, gutxienez, kide batek osatuko dute.

#### 4.3. ENPRESA KONTRATISTAREN GAITASUNA

Museoarekin kontratatu ahalko dute jarduteko gaitasun osoa duten Espainiako edo kanpoko pertsona fisiko edo juridikoek, baldin kontratatzeke debekuren batek eragiten ez badie eta kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta gaitasun tekniko edo profesionala egiaztatzen badituzte.

Gaitasunari eta kaudimenari buruz kasu bakoitzean eskatzen diren gutxieneko baldintzek kontratuaren xedeari loturik egon beharko dute, eta harekiko proportzionalak izan; hala, kontratuaren baldintza-agirian zehaztuko dira bai baldintzak, bai haiek egiaztatzeke eskatzen diren agiriak, kasu bakoitzean jarraibide hauen arabera eskatu beharrekoak, hain zuzen. Horretarako, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legeko 86. artikuluan eta hurrengoetan xedaturik dagoena aplikatu ahalko du Museoak, kontratazio-organoak egoki baderitzo.

Pertsona juridikoa izanez gero, kontratuaren esleipendunak izan ahalko dira haien helburu soziala eta jarduera-kodea kontratuaren xedearen barnean, dena delako jarduerari dagokionez, sartzen direnean soilik.

Nolanahi ere, Museoarekin kontratatzekeoak diren enpresek, nahi eta nahi ez, hurrengo baldintzak bete beharko dituzte, kontratuaren xede den prestazioa aurrera eramaten den epe guztian zehar eskatzekeoak:

- a) Zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzaren arloko betebeharrak egunean izatea.
- b) Lan-arloko betebeharrak betetzen direla egiaztatzea, bereziki segurtasuneko eta laneko arriskuen prebentzioko planei nahiz genero-berdintasunari dagokienez, lege ezarrita dagoen moduan.
- c) 9/2017 Legeko 71. artikuluan jasotzen diren kontratatzeke debeku-kasuetako batean ez egotea, baldin eta kontratazio-organoaren iritziz eragozpen badira kontratuaren xede den proiektuaren bideragarritasunerako.

#### 5.- BERMEAK ESKATZEA

Oro har, Museoak ez du eskatuko bermerik eratzeko deialdira ateratzen dituen lizitazioetan, kontratu jakinen bateko salbuespenezko zirkunstantziak direla bide, halakoak eskatzea komenigarria izan ezean. Halakoetan, kontratuaren zirkunstantzia eta ezaugarriak aintzat harturik, kontratazio-organoak eskatu ahalko du lizitatzailleek edo hautagaiek berme bat emateko, erantzun dezaten eskaintzak esleipenera mantentzeaz; halaber, esleipendunari berme bat eskatu ahalko diote, prestazioa behar bezala gauzatzen duela ziurtatzeko.

Bermeen zenbatekoa kasu bakoitzean ezarriko da, kontratuaren zirkunstantzia eta ezaugarriak aintzat harturik.

Deialdira ateratako prozedura bakoitzaren klausula tekniko eta administratiboen agirietan zehaztuko dira bermeak aurkezteke erak.

## II. MUSEOAK ESLEITUKO DITUEN KONTRATUAK

### 6.- KONTRATAZIOKO PRINTZPIO OROKORRAK

Jarraibide hauek aplikagarriak zaizkion kontratuak publikotasunaren, lehiaren, gardentasunaren, konfidentziasunaren, berdintasunaren, eta bereizkeriarik ezaren printzipioei jarraituz bideratuko dira.

Aurreko ataletan adierazitakoaren ondorioetarako, printzipio horiek betetzat joko dira, KBJ hauetako hurrengo ataletan jasotako arauak betez gero; halakoak aplikatzeko eta interpretatzeko, hain zuzen, honako jardun-gidalerro hauek hartuko dira aintzat:

1. **Publikotasun-printzipioa:** betetzat joko da lizitatzaille potentzial ororen mesedetan egokiak eta behar bezain irisgarri diren zabalkunde-bide batzuk erabiliz gero; hala, bide horiek Museoaren kontratuei buruzko informazioa eman beharko dute, eta merkatua lehiara irekitzea ahalbidetu, dela lizitatzeko zuzeneko gonbidapenaren bidez, dela Kontratatzaillearen Profilean kontratazio-eskaintza argitaratuz.
2. **Gardentasun-printzipioa** betetzat joko da, dena delako kontratua esleitu aurretik, informazio egokia zabalduz gero; hala, lizitatzaille potentzial orok lizitazioan parte hartzeko interesa agertzeko moduan egotea ahalbidetu beharko du informazio horrek. Halaber, printzipio honek berekin ekarriko du parte-hartzaile guztiek alde aurretik ezagutu ahal izatea esleitu nahi den kontratuari aplikagarri zaizkion arauak, eta arauok enpresa guztiei era berean aplikatzen zaizkielako ziurtasuna izan dezaten. Beharrezko neurriak hartuko dira, KBJ hauetan ezarritakoari jarraituz, lizitatzaille potentzialek informazioa eskuratu eta parte har dezaten errazteko, kontratua ekonomiaren aldetik onuragarriena den eskaintzari esleitzeko helburuz, edo prozedurarekin bat etorri kontratazio-organoak ezartzen duen dena delako esleipen-irizpidea betetzen duenari.
3. **Konfidentziasun-printzipioa** errespetatuko da, Museoak bere gain hartuz enpresaburuek eman eta konfidentziazat jo duten informazioa ez zabaltzeko betebeharra, horretarako justifikatutako arrazoiak daudenean betiere, sekretu tekniko eta komertzialei eta eskaintzen alderdi konfidentzialei dagokienez bereziki.

Kontratazio-organoaren nahiz haren mendeko zerbitzuen konfidentziasun-betebeharra ezingo da hedatu esleipendunaren eskaintzaren eduki osora, ez eta lizitazio-prozeduran zehar kontratazio-organoak, zuzenean edo zeharka, sortutako txosten eta agiri guztien eduki osora ere, halakorik sortuz gero.

Zabalkunde murriztuko agirietara baino ezingo da hedatu, eta inola ez jendurrean irisgarri egoteko moduko agirietara. Konfidentziasun-betebeharrak ezingo du galarazi, orobat, egindako kontratuen atal ez-konfidentzialak jendurrean zabaltzea, hala nola likidazioa, obra gauzatzeko azken epeak, kontratatutako eta azpikontratutako enpresak eta, betiere, eskaintzaren funtsezko atalak eta kontratuaren geroagoko aldaketak, datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Legea Organikoan xedaturik dagoena errespetatuz beti.

Era berean, printzipio hau aplikatzearen ondorioz, kontratistek errespetatu egin beharko dute kontratua gauzatzean ezagutzen duten informazioaren izaera konfidentziala, baldintza-agirietan edo kontratuan halako izaera ematen zaionean, edo informazio horren izaeratik beragatik halakotzat tratatu behar denean.

Betebehar horrek bost urtez iraungo du, informazio hori ezagutzen denetik zenbatzen hasita, baldintza-agirietan edo kontratuan epe luzeagoa ezarri ezean; azken kasu horretan, epeak zehatza eta denboraren aldetik mugatua izan beharko du.

Lizitatuzaileen eta enpresa esleipendunen datu pertsonalen erabileraren eta tratamenduaren aldetik, indarrean den legediaren arabera datu-babesa betetzea bermatuko da.

4. **Berdintasun eta bazterkeriarik ezeko printzipioa** bermatzeko, beharrezko neurriak hartuko dira, prozeduren inpartzialtasuna eta ekitatea bermatzeko. Neurri horien artean, gutxienez, honako hauek egongo dira:

I. Kontratuaren xedea beti deskribatuko da bazterkeriazkoa ez den era batean, fabrikazio edo jatorri jakin bat aipatu gabe, ez eta produktu partikularrak ere, eta marka, patente, mota, jatorri edo ekoizpen jakin batzuen erreferentzia egin gabe, halako erreferentzia bat era egokian justifikatu ezean eta “edo baliokidea” esamoldea erantsi ezean.

II. Ez da baldintzarik ezarriko, zuzeneko edo zeharkako bazterkeria eragiten duenik Europar Batasuneko beste estatu batzuetako lizitatuzaile potentzialen aurrean.

III. Hautagaiei eskatzen bazaie tituluak, ziurtagiriak edo bestelako justifikazio-agiri batzuk aurkez ditzatela, jatorria EBko beste estatu batzuetan duten agiriak onartuko dira, tituluak, ziurtagiriak eta beste diploma batzuk elkarri onartzeko printzipioari jarraituz.

5. **Lehia-printzipioa** beteko da, kontratazio-prozesu batean parte hartzeko interesa duten enpresentzat eskuragarri dagoen kontratu bati buruzko informazioa emanaz, enpresa horiek beren proposamenak ezarritako prozedurari jarraituz aurkeztu ahal izatea bermatuta. Halaber, printzipio horiek betetzen dira gonbidapena edo aurrekontu-eskaera helarazten zaienean kontratazioaren xede den zerbitzua emateko gaitasun nahikoa duten hiru lizitatuzaile posibleri gutxienez. Kontratuen esleipen-prozeduretan zerbitzu-emaile edo hornitzaile bat baino gehiago lehiatzen direnean, Museoak bermatu egingo du haiek guztiek informazio bera dutela kontratuari buruz, baldintza berberetan.

## 7.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA.

Museoak bere identifikazio-datuak bere webgunean jarriko ditu jendaurrean, bai eta Kontratazioko Barne Jarraibide hauek ere, bere kontratazio-jardueraren inguruko informazioa eta agiriak barne, gardentasuna eta jendaurreko irisgarritasuna ziurtatzeko helburuz.

Informazio horretarako irispideak libre eta doakoa izan beharko du, eta publikotasuna behar duten irekitako kontratu-prozesuen beharrezko informazioa jasoko du.

## 8.- MUSEOAK IZAPIDETUKO DITUEN KONTRATAZIO-PROZEDUREN ARAU ERKIDEAK

### 8.1.- Kontratuaren prezioa

Kontratuaren prezioa izango da haren esleipenaren ondoriozkoa, eta, kontu-sail berezi gisa, BEZa hartuko du barnean.

Kontratuaren prezioaren barnekotzat joko dira aplikagarriak diren gainerako edonolako tributu, tasa eta kanonak, bai eta behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren gastu guztiak ere, baldintza partikularretan nahiz enpresa kontratistak aurkezturiko eskaintzan zehaztutakoaren arabera (gastu orokorrak, finantza-gastuak, etekinak, aseguruak, garraioa eta joan-etorriak, bere konturako pertsonal teknikoaren ordainsariak, ikus-onetsiak, etab.).

## 8.2.- Kontratuaren prezioa ordaintzea

Enpresa kontratistak eskubidea izango du benetan gauzatutako prestazioak ordain dakizkion, lanei buruz Museoaren adostasuna jaso, eta dagokion faktura helarazi eta gero, hura onartzeko behar diren agiri guztiekin batera.

Baldintza partikularretan zehaztuko dira prezioaren ordainketak, eta, zehaztu ez badira, lanak bukatzean ordainduko dira osorik, lanoi buruz Museoaren adostasuna jaso eta gero; inola ere ezingo da ordainketarik egin, adostasun hori formalizatu arte.

Prezioaren ordainketa egingo da 30 egun naturaleko epean, esleipendunak faktura jaulki eta Museoari behar bezala eman, eta azken horrek onartzen duenetik zenbatzen hasita.

Enpresa kontratistak ez du eskubiderik izango ordain dakizkion, Museoaren berariazko baimenik gabe, gauzatutako horniduran edo lanetan egin dituen hobekuntzak edo desbideratzeak.

Museoak eskubidea izango du prezioetik kentzeko agiri honi jarraituz enpresa kontratistari ezarritako zigorrak.

## 8.3.- Kontratuaren iraupena

Museoak egiten dituen kontratuen iraupena zehaztu beharko da, prestazioen izaera, haien finantzaketaren ezaugarriak, eta halakoak egitea aldi behin lehian jartzeko beharra aintzat hartuz.

Kontratuak luzapen bat edo gehiago izan ahalko ditu, baldin eta haren ezaugarriek aldatu gabe badiraute luzapenotan, eta esleitzeko lehia kontratuaren gehieneko iraupena, luzapen-epaiekin barne, kontuan hartuz egin bada. Luzapena kontratazio-organoak erabakiko du, eta nahitaezkoa izango da esleipendunarentzat, kontratuan kontrakoa ezarri ezean; ezingo da gertatu, era berean, alderdien isilbidezko adostasunagatik.

## 8.4.- Museoaren betebeharrak

Hauek izango dira Museoaren betebeharrak:

- Kontrataturiko ondasunak, obrak eta/edo zerbitzuak ordaintzea, kontratu-agirietan ezarritik dauden prezio eta baldintzetan.

- Ordezkeri bat izendatzea, enpresa kontratistaren aurrean jardungo duena eta kontratuaren garapenaren eta gauzapenaren arduraduna izango dena.
- Enpresari beharrezko agiriak ematea, kontrataturiko lana osorik egin ahal izateko.

## 8.5.- Enpresa kontratistaren betebeharrak

### 8.5.1. Laneko arriskuen prebentzioa

Enpresa kontratistak zorroztasunez beteko ditu eta bere pertsonalari nahiz azpikontratistei betearaziko dizkie lan-arloko legediak ezarritako betebeharrak, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboa barne, eta, bereziki, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen ondoriozko betebeharrak oro, bai eta hura garatzeko araudia ere.

Obra-kontratuetan, haien ezaugarriengatik egokitzen jotzen denean edo legez hala xedaturik dagoenean, enpresa kontratistak jarraian aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko ditu, edo segurtasuneko koordinatzaileak berak beharrezkotzat jotako beste edozein agiri, gero berrikusi eta onartzeko:

- Obran dagoen pertsonalaren TC1 eta TC2 inprimakiak.
- Obran parte hartzen duen pertsonalaren zerrenda (izena, deiturak, NANA eta betetzen duen lanpostua).
- Segurtasun- eta osasun-plan bat; enpresa kontratistaren kontura izango da hura gauzatzea eta haren kostua ordaintzea.
- Prebentzio-erakunde batekin egindako kontratuaren fotokopia edo, bestela, enpresaren prebentziozko antolaketa egiaztatzen duen agiria.
- Obran dagoen pertsonal guztiak bere lanpostuko arriskuei buruzko prestakuntza eta informazio nahikoak jaso dituela egiaztatzen duen agiria.
- Lantoki-irekiera.
- Enpresa bermatuen erregistroko inskripzioa.
- Bisita-liburua.
- Azpikontratazio-liburua.
- Istripuetarako mutualitatea.
- NBEak jaso izana egiaztatzen duen agiria.
- Obrarako izendatutako prebentzio-baliabidearen izena.
- Pertsonalak bere lanposturako gaitasuna duela aditzera ematen duen osasun-ziurtagiria.
- Kontrataturiko lanen arriskuen ebaluazioa eta prebentziozko jardueraren plangintza (segurtasun- eta osasun-planean xehatu ez badira).
- Erabilitako makineriaren zerrenda, CE markarekin edo egokitasun-agiriarekin.
- Obran makineria erabiltzeko baimenduta dauden pertsonen izena.

### 8.5.2. Enpresa kontratisten gutxieneko lan- eta gizarte-betebeharrak

- a) Lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan nahiz laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean diren eta aplikagarriak diren lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapenak betetzeari lotuta dago kontratua.

Ondorioz, enpresa kontratistak, esleituriko lana egiteko enplegatzen duen pertsonalarekin, beharturik dago lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan, ezinduak gizarteratzearen arloan zein laneko arriskuen prebentzioarenean indarrean den

araudia zehatz-mehatz betetzera, eta azken horiei dagokienez, baita gizarte-heziketaren arlokoa bai; konpromisoa hartzen dute, halaber, enpresa azpikontratistek –halakorik dagoenean– beren langileei dagokienez lan-arloan indarrean den legedia bete dadin.

- b) Enpresa kontratista behartuta egongo da lana, bere enpresan nahiz, azpikontratatu gero, azpikontratatu dituen enpresetan, baldintza duinetan egin dadin; hala, haren langileei kide diren sektoreko hitzarmena izango zaie aplikagarria, bereziki pertsonalaren subrogazioari dagokionez. Horren inguruan, kontratua esleitu aurretik, Museoak enpresa kontratistari eskatu ahalko dio identifika dezan zein hitzarmen kolektibo izango zaion aplikagarria kontratuaren xede den jardura egingo duen pertsonalari, bai eta pertsonal horri benetan aplikatuko zaizkion lan-baldintzei buruz behar den informazio oro ere.
- c) Enpresa kontratistak, kontratua gauzatu ari den bitartean, hitzarmen kolektibo aplikagarrian jasotako soldata ordaindu beharko du, langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, ordainduko den soldata inola ere hura baino txikiagoa izateko aukerarik gabe.
- d) Enpresa kontratistak berariaz adierazten du badituela beharrezko ezagutza, gaitasuna, baliabideak eta bitartekoak, laneko higiearen, segurtasunaren eta ingurumenaren aldetik kontratua gauzatzeko aplikagarriak diren xedapen eta arau guztiak betetzeko eta betearazteko, Museoari kalterik eragin gabe kontratua gauzatzeko arlo horiei loturik gertaturiko gorabeheren ondorioz egiten den edozein erreklamazioren aurrean.
- e) Enpresa kontratistak aplikatu beharreko norbera babesteko ekipamendu homologatuz hornitu beharko du bere pertsonal guztia, kontratuaren xede diren lanetarako eginiko azterketaren ondorioz taxuturiko laneko arriskuen prebentziorako planaren arabera, eta ziurtatu beharko du pertsonal horrek ekipamendu horiek erabiltzeko behar den prestakuntza jaso duela.
- f) Museoak hala eskatuta, enpresa kontratistak aurkeztu egin beharko ditu dokumentaturik egon behar duten edo egon daitezkeen betebeharrak guztiak betetzen direla egiaztatzen duten agiri guztiak.
- g) Lanei atxikitako pertsonala enpresa kontratistaren mende baino ez da egongo, eta azken horrek izango ditu enpresaburu gisa pertsonal horren aldera berez dagozkion eskubide eta betebeharrak guztiak.
- h) Kontratua formalizatzeko ondorioz, Museoak ez du bere gain hartzen enpresa kontratistari bere pertsonalaren aldera legez edo erregelamenduz dagozkion lan- eta gizarte-betebeharretako bat ere. Enpresa kontratistak, betiere, bere gain hartzen du Museoari kalterik ez eragiteko konpromisoa, betebeharrak horiek betetzeari loturik enpresako pertsonalak edo hirugarren batzuek aurkezturiko edozein erreklamaziori dagokionez.
- i) Enpresa kontratistak enplegatzaile gisa ezartzen zaizkion betebeharrak guztiei erantzun die, eta lan-harremana edo bestelakoak –beraren, edo haren azpikontratisten, eta batoren edo bestearen pertsonalaren artean– arautzen eta garatzen dituzten arau guztiak beteko ditu; hala, ezingo dio Museoari jasanarazi inongo isunik, zehapenik edo beste edonolako erantzukizunik, aipatutako arauak ez betetzeagatik ezartzen zaizkionean, halakorik ezarritako gero.



Nolanahi ere, enpresa kontratistak Museoari kalte-ordaina emango dio enpresa kontratistak agiri honetan ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik ordaintzera beharturik aurkitzen den kopuru ororengatik, hori ebazpen judizial edo administratibo batek ezarri arren.

- j) Kontratua azkentzen denean, haren xede diren lanak egin dituzten pertsonak ezingo dira inola ere geratu Museoaren pertsonal gisa.
- k) Enpresa kontratistari egokituko zaizkio, eta haren kontura izango dira, kontratua gauzatzeko sortzen zaizkion kostu guztiak.
- l) Museoak eskatzen dituen agiriak ez aurkeztea edo justifikaziorik gabe aurkezten berandutzea, edo enpresa kontratistak klausula honetan jasota dauden xedapenak ez betetzea, kontratu-betebeharrak ez betetzea izango da, eta kontratua behar bezala ez betetzearen ondorioz agiri honetan ezartzen diren zigorrak ezarri ahalko ditu Museoak, eta prozedura abiarazi, enpresaburuak kontratatzea debeku izan dezala eskatzeko eta, hala badagokio, agiri honetan ezarritakoari jarraituz kontratua suntsiarazteko.

### **8.5.3. Ingurumen-arloko betebeharrak**

- a) Kontratistak saihestu egingo du bere edo beraren azpikontratisten eragiketek inpaktu negatiboa izan dezaten natura-ingurunean edo animalia- eta landare-bizitzan, eta beharrezko neurriak hartuko ditu halako eragiketetan sorturiko edozein gorabehera, halakorik sortuz gero, ezabatze edo murrizteko.
- b) Enpresa kontratistak ingurumen-arloko agintaritza eskudunek emandako lege, erregelamendu eta gomendio guztiak betez egingo du lana, eta zorroztasunez jarraituko die Museoak ezarritako arau gehigarri guztiei, halakoak ezartzen dituenean; haiek ez betetzearen erantzule bakarra izango da.
- c) Enpresa kontratistak bere erantzukizuntzat hartzen du Museoarekin hartutako kontratu-betebeharrak betetzeko bere gain hartzen duen ingurumen-erantzukizuna ezagutzea, hura zabaltzea eta bere pertsonalari haren inguruko prestakuntza ematea.

### **8.5.4. Hirugarren batzuen baimenak**

Museoak bere kabuz hartzea erabakitzen duen kontratu eta gestioak gorabehera, enpresa kontratistak bere gain hartuko du beharrezko baimen eta lizentzia guztiak eskuratzeko erantzukizuna, partikular, elkarte, enpresa edo erakundeen aurrean, lana behar bezala gauzatzeko. Baimen horiek eskuratzeko kostua, halakorik eragiten dutenean, enpresa kontratistaren kontura izango da soil-soilik.

### **8.6.- Kontratua aldatzea**

Kontratua burutu eta gero, taxutzen diren baldintza-agirietan aurreikusitako kasu eta baldintzetan aldatu ahalko du kontratua Museoak.

Klausula honetan xedaturikoari jarraituz erabakitzen diren aldaketak nahitaezkoak izango dira enpresa kontratistarentzat.

## **8.7. Berme-epea**

Kontratua bukatzean, Museoak kontratuaren xede diren lanak hartzeko egintza formal bat egingo du, eta une horretatik aurrera hasiko da zenbatzen berme-epea, halakoa jasota baldin badago baldintza partikularretan eta/edo eskaintzan.

Bermearen indarraldia baldintza partikularretan eta/edo eskaintzan ezarriko da. Baldintza partikularretan bermerako irizpiderik ezarri ez bada, oro har, 24 hilabeteko berme-epe bat aplikatuko da, behin betiko harreratik zenbatzen hasita.

Berme-epean, enpresa kontratistaren kontura izango dira kontratuko kalitate-baldintzak ez betetzeagatik berriz jarri beharreko material guztiak eta egin beharreko konponketa guztiak.

Berme-epea eten egingo da materiala jartzeak edo konponketa egiteak dirauen denboran, eta azken horiek, era berean, bermea izango dute, bukatzen direnetik zenbatzen hasita, ezarri zen jatorrizko bermenaren aldi bererako.

Enpresa kontratistak bermeak betetzen ez baditu, Museoak egiteke dauden ordainketak atxiki ahalko ditu, abalak gauzatu ahalko ditu, eta kontratua suntsiarazi ahalko du, enpresa kontratistak dagokion kalte-ordaina ordainduta, eragindako kalte-galerengatik.

Berme-epea bukatuta, Museoak enpresa kontratistari adierazi gabe zerbitzua ematean edo kontratuaren xede diren lanetan eragozpenik, hutsik edo akatsik dagoenik, kontratua azkendu egingo da, bai eta enpresa kontratistaren erantzukizuna ere, ezkutuko akats edo hutsen kasuan izan ezik; azken horiek daudenean, enpresa kontratista erantzule izango da, berme-epea bukatuta egonik ere.

## **8.8. Epeak eta berandutzearen ondoriozko zigorrak**

Enpresa kontratistak kontratua bete beharko du baldintza-partikularretan, eskaintzan zein adostutako lan-planeari hura gauzatzeko ezarritako epeen barruan, bai guztizko epeei, bai epe partzialei dagokienez.

Enpresa kontratista, edonolako epeetan, berandutze-egoeran sartzeko, ez da beharrezkoa izango Museoak, aurretiaz, agindeirik egitea. Berandutze horien ondoriozko zigorrak automatikoki ezarri ahalko dira.

Azken epearen edo epe partzialetako baten bukaeran, enpresa kontratista berandutze-egoeran sartzen bada berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio, Museoak enpresa kontratistari eguneguneko zigorra ezarri ahalko dio, 3 euroko proportzioan, kontratuaren prezioaren 1.000 euroko, BEZa kontuan hartu gabe.

Zigorren zenbatekoak ez du baztertzen Museoak kalte-ordaina jasotzeko eskubidea, halakoa duenean enpresa kontratista berandutzeak eraginiko kalte-galerengatik, ez eta kontratua suntsiaraz dadila eskatzeko Museoak duen eskubidea ere.

Halako zigorrak ezartzeko, prozedura bat bideratuko da, eta hartan, halabeharrez, enpresa kontratistak alegazioak egiteko izapide bat egingo da.

## **8.9. Enpresa kontratistak kontratua behar bezala ez betetzea edo zati batean ez betetzea**

Museoak zehaztuko du enpresa kontratistak egindako prestazioa baldintza partikularretan eta aurkezturiko eskaintzan ezarririk dauden zehaztapenekin bat datorren, eta eskatu egingo du, beharrezkoa bada, kontraturiko prestazioak egin daitezela eta harreran antzemandako akatsak konpon daitezela dagokion epean; epe hori ezingo da izan hamar (10) egun baliodunetik gorakoa obra-kontratuetan eta bost (5) egun baliodunetik gorakoa zerbitzu- eta hornidura-kontratuetan.

Eginiko lanak ez badatoz bat kontraturiko prestazioarekin, enpresa kontratistari egotz dakizkiokeen akats, gabezia edo hutsak direla medio, Museoak lan horiei uko egin ahalko die, ordaintzeko betebeharretik salbuetsita geratuta horrela, eta kontratua suntsiaraztea aukeratu ahalko du, enpresa kontratistak zigor bat ordainduta, azkenean adostutako prezioaren % 20koa.

Zigorren zenbatekoak ez du baztertzen Museoak kalte-ordaina jasotzeko eskubidea, halakoa duenean enpresa kontratistak kontratua ez betetzeak eraginiko kalte-galerengatik.

## 9. KONTRATAZIO-PROZEDURAK

Kontratazio-organoak kasu bakoitzean aukeratu ahalko du, kontratuaren xedearen izaeraren eta ezaugarrien arabera, haren beharrianetara ongien egokitzen den prozedura-mota; azkenean egiten duen aukera justifikatu beharko du.

Hala ere, oro har, kontratu-mota bakoitzerako jarraitu beharreko prozedurak ezartzen dira. Nahiz eta kontratu-mota bakoitzari, bere zenbatekoaren arabera, aplikatu beharreko prozedura ezartzen zaion, sailkapen hori orientatzeko baino ez da; hala, lizitatzekoa den kontratuaren ezaugarrien arabera, Museoak kasu bakoitzean estali behar diren beharrianetara ondoen egokitzen den prozedura aukeratu ahalko du.

Zehazki, kontratatuko den prestazioa enpresa kontratista bakar batek gauzatu ahal duen kasuetan edo, presazko arrazoiak direla-eta, beharrezkoa denean, zuzeneko esleipena baliatuko da, kontratatuko den prestazioaren zenbatekoa edozein izanik ere.

### 9.1.- Museoaren kontratuei aplikatzeko mugak

Museoak esleitzekoak diren kontratuak muga hauen arabera sailkatuko dira:

| Muga     | Sartzen diren kontratuak   | Prozedura aplikagarria   |
|----------|--|--|
| <b>1</b> | - <u>Obrak</u> : balio zenbatetsia 40.000 € edo gutxiago denean.<br>- <u>Zerbitzuak eta hornidurak</u> : balio zenbatetsia 15.000 € edo gutxiago denean. | Zuzeneko esleipena   |
| <b>2</b> | <u>Zerbitzuak eta hornidurak</u> : balio zenbatetsia 15.000 € baino gehiago eta 50.000 € edo gutxiago denean.  | Zuzeneko esleipena, aurretiaz 3 aurrekontu eskatuta                    |
| <b>3</b> | <u>Obrak</u> : balio zenbatetsia 40.000 € baino gehiago eta 300.000 € edo gutxiago   | Prozedura murriztua, aurretiaz gutxienez 3 eskaintza eskatuta, posible |

|   |  |                                    |
|---|--|------------------------------------|
|   | denean.<br><u>Zerbitzuak eta hornidurak:</u><br>balio zenbatetsia 50.000 €<br>baino gehiago eta 100.000 €<br>edo gutxiago denean.                                      | baldin bada                        |
| 4 | - <u>Obrak:</u> balio zenbatetsia<br>300.000 € baino gehiago<br>denean.<br>- <u>Zerbitzuak eta hornidurak:</u><br>balio zenbatetsia 100.000 €<br>baino gehiago denean. | Prozedura irekia edo<br>negoziatua |

## 9.2 Zuzeneko esleipena

1. mugaren barruko kontratuak zuzenean esleituko zaizkio jarduteko gaitasuna nahiz kontratuaren xede den prestazioa gauzatzeko beharrezko lanbide-gaikuntza dituen edozein enpresabururi.

Kontratazio-organoak enpresa bakarrari eskatu ahalko dio aurrekontua, eta zuzenean enpresa hari emango dio esleipena.

2. mugaren barruko kontratuen kasuan, kontratazioa zuzenean egingo da, aurretiaz hiru (3) aurrekontu eskatuta.

Kasu batean zein bestean (1. mugaren eta 2. mugaren barruko kontratuak), eskaintako aurrekontua onartuz egingo da kontratazioa, edota dagokion kontratua izenpetuz, beharrezkoa irizten zaionean.

## 9.3 Prozedura murriztua

3. mugaren barruko kontratuak ekonomiaren aldetik onuragarriena den eskaintzari esleituko zaizkio, aurretiaz aurrekontuak eskatuta hiru enpresari, gutxienez, horretarako gonbidapena eginez.

Aldez aurretik, organo eskudunak klausula teknikoan eta klausula partikularren agiriak prestatuko ditu, kontratuari buruzko datuak adierazita; honako datu hauek, gutxienez:

- a) Kontratuaren xedea.
- b) Proiektuaren arduraduna den Museoko pertsonaren datuak.
- c) Kontratazioaren xede den jardueraren baldintzak eta ezaugarri teknikoak.
- d) Lizitatzailleek aurkeztu beharreko agiriak.
- e) Eskaintzak aurkezteko epea.
- f) Kontratuaren edo aurreikusitako aurrekontuaren zenbatekoa, hala dagokionean.
- g) Kontratuaren iraunaldia.
- h) Esleipen-irizpideak.

Lizitazio-prozesuan parte hartzeko gonbidapena, horretarako taxuturiko baldintza-agiriekin batera, merkatuan diharduten eta jarduera edo helburu soziala kontratuaren xede den ekintza

edo zerbitzuaren ildokoa duten hiru enpresari gutxienez helaraziko zaie, posible den eta kontratazio-eskaintzaren informazioa bermatzen duen edozein bide baliatuz.

Aurretik Sail Teknikoak txostena eginik, Kontratazio Organoak ekonomiaren aldetik onuragarriena den eskaintza egindako enpresari esleituko dio kontratua, enpresa horrek, kontratatzeko lege-baldintzak beteta eta jarduteko gaitasuna izanda, baldintza-agirietan eskatutako agiriak aurkeztuta dituenean, hori eragozpena izan gabe beste esleipen-irizpide batzuk aintzat hartzeko, ekonomiaren aldetik onuragarriagoak izan gabe ere, errentagarritasun eta abantaila handiagoa eskaintzen dutenean kalitate-prezio erlazio batean.

Proposamenak baloratzeko, prezioa ez diren beste irizpide batzuk aintzat hartu behar direnean, organo eskudunak, horretarako, esleipen-proposamena egin baino lehen, haren iritziz beharrezkoak diren txosten tekniko guztiak eskatu ahalko ditu. Halaber, halako txostenak eskatu ahalko dira, eskaintzek eskatutako zehaztapen teknikoak betetzen dituztela egiaztatu behar denean.

Sail Teknikoak eskaintzen konparazio-taula bat osatuko du, eta txosten tekniko bat, kontratua onuragarriena den eskaintzari esleitzearen bideragarritasunari buruz.

#### 9.4 Prozedura irekia

Kontratazio Organoak klausula teknikoen eta klausula partikularren agiriak prestatuko ditu, kontratatzeko arrazoiari buruzko datuak adierazita; honako datu hauek, gutxienez:

- a) Kontratuaren xedea.
- b) Proiektuaren arduraduna den Museoko pertsonaren datuak.
- c) Kontratazioaren xede den jardueraren baldintzak eta ezaugarri teknikoak.
- d) Eskaintzak aurkeztean interesdunek bete beharreko kaudimen-baldintzak.
- e) Lizitatuzaileek aurkeztu beharreko agiriak.
- f) Proposamenak aurkezteko epea.
- g) Kontratuaren edo aurreikusitako aurrekontuaren zenbatekoa.
- h) Kontratuaren iraunaldia.
- i) Esleipen-irizpideak.

Baldintza-agiriak Museoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko dira, 10 egun baino gutxiagokoa izango ez den epean lizitatuzaileek beren eskaintzak aurkez ditzaten. Epe hori luzatu egin ahalko da, Kontratazio Organoak egoki iritziz gero.

Eskaintzak aurkezteko epea bukatutakoan, aurkezturiko agiriak ikusita, Kontratazio Organoak, aldeztu aurretik, bere erabakia emango du, lizitaziora onartzen diren enpresei buruz.

Gero, aurkezturiko eskaintzak aztertuko dira. Proposamenak baloratzeko, prezioa ez diren beste irizpide batzuk aintzat hartu behar direnean, organo eskudunak, horretarako, esleipen-proposamena egin baino lehen, haren iritziz beharrezkoak diren txosten tekniko guztiak eskatu ahalko ditu. Halaber, halako txostenak eskatu ahalko dira, eskaintzek eskatutako zehaztapen teknikoak betetzen dituztela egiaztatu behar denean.

Aurretik Sail Teknikoak txostena eginik, Kontratazio Organoak ekonomiaren aldetik onuragarriena den eskaintza egindako enpresari esleituko dio kontratua, enpresa horrek, kontratatzeko lege-baldintzak beteta eta jarduteko gaitasuna izanda, baldintza-agirietan eskatutako agiriak aurkeztuta dituenean, hori eragozpena izan gabe beste esleipen-irizpide

batzuk aintzat hartzeko, ekonomiaren aldetik onuragarriagoak izan gabe ere, errentagarritasun eta abantaila handiagoa eskaintzen dutenean kalitate-prezio erlazio batean.

Sail Teknikoak eskaintzen konparazio-taula bat osatuko du, eta txosten tekniko bat, kontratua onuragarriena den eskaintzari esleitzearen bideragarritasunari buruz.

#### 9.5 Prozedura negoziatua

Kontratuaren alderdiren bat alde aurretik ezin zehaztu daitekeenean, prozedura negoziatuaren izapideei jarraituko zaie, aurretiaz eskaintzak aurkezteko berariazko gonbidapena eginik kontratuaren xedeari lotutako jarduera-sektoreko gaitasuna duten hiru enpresari gutxienez, posible baldin bada.

Aldez aurretik, baldintza-agiri bat prestatuko da, kontratuaren oinarrizko ezaugarriak eta negoziagai diren alderdiak, gutxienez, jasoko dituen:

- a) Kontratuaren xedea.
- b) Proiektuaren arduraduna den Museoko pertsonaren datuak.
- c) Kontratazioaren xede den jardueraren baldintzak eta ezaugarri teknikoak.
- d) Eskaintzak aurkeztean interesdunek bete beharreko kaudimen-baldintzak.
- e) Negoziagai diren alderdiak.
- f) Lizitatzailleek aurkeztu beharreko agiriak.
- g) Proposamenak aurkezteko epea.
- h) Kontratuaren edo aurreikusitako aurrekontuaren zenbatekoa, posible bada.
- i) Kontratuaren iraunaldia.
- j) Esleipen-irizpideak.

Kontratuaren ezaugarriak direla-eta, kontrakoa komenigarria izan ezean, baldintza-agiriak Museoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko dira, 10 egun baino gutxiagokoa izango ez den epean lizitatzailleek beren eskaintzak aurkez ditzaten. Epe hori luzatu egin ahalko da, Kontratazio Organoak egoki iritziz gero.

Eskaintzak aurkezteko epea bukatutakoan, aurkezturiko agiriak ikusita, Kontratazio Organoak, alde aurretik, bere erabakia emango du, lizitaziora onartzen diren enpresei buruz, eta, gero, baldintza-agirietan adierazitako alderdiak negoziatzeari ekingo zaio.

Proposamenak baloratzeko, prezioa ez diren beste irizpide batzuk aintzat hartu behar direnean, organo eskudunak, horretarako, esleipen-proposamena egin baino lehen, haren iritziz beharrezkoak diren txosten tekniko guztiak eskatu ahalko ditu. Halaber, halako txostenak eskatu ahalko dira, eskaintzek eskatutako zehaztapen teknikoak betetzen dituztela egiaztatu behar denean.

Aurretik Sail Teknikoak txostena eginik, Kontratazio Organoak ekonomiaren aldetik onuragarriena den eskaintza egindako enpresari esleitzeko dio kontratua, enpresa horrek, kontratatzeko lege-baldintzak beteta eta jarduteko gaitasuna izanda, baldintza-agirietan eskatutako agiriak aurkeztuak dituenean, hori eragozpena izan gabe beste esleipen-irizpide batzuk aintzat hartzeko, ekonomiaren aldetik onuragarriagoak izan gabe ere, errentagarritasun eta abantaila handiagoa eskaintzen dutenean kalitate-prezio erlazio batean.

Sail Teknikoak eskaintzen konparazio-taula bat osatuko du, eta txosten tekniko bat, kontratua onuragarriena den eskaintzari esleitzearen bideragarritasunari buruz.

## 10. ENPRESA KONTRATISTA HAUTATZEA

Kontratazio Mahaiak edo, kasuaren arabera, Museoko dagokion organoak kontratuen esleipena proposatuko du, posible den neurrian, esleipen-irizpide sorta bat erabiliz, kalitate-prezio erlaziorik onenean oinarriturik.

Kalitate-prezio erlaziorik onena irizpide ekonomiko zein kualitatibo batzuen arabera ebaluatuko da.

Kontratazio-organoak, kalitate-prezio erlaziorik onena ebaluatzeko, ezartzen dituen irizpide kualitatiboek ingurumen-alderdiak edo alderdi sozialak hartu ahalko dituzte barnean, kontratuaren xedeari lotutakoak; horretarako, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legeko 145. artikuluan jasotako irizpide-zerrendara jo ahalko da.

Kontratazio Organoak kontratua proposaturiko enpresari esleitu ahalko dio, edo, bestela, beste eskaintzailearen bati esleitu ahalko dio, haren eskaintza onuragarriena dela irizten badio; azken kasu horretan, halako erabaki baten arrazoiak justifikatu beharko ditu.

Lizitazio-prozedura ebatzitakoan, Museoak esleipenaren berri emango die esleipendunari nahiz prozeduran parte hartu duten gainerakoei. Halaber, kontratua formalizatzeko beharrezkoak diren agiriak eskatuko dizkio esleipendunari. Horrez gain, esleipenaren emaitza Kontratatzaileraren Profilean argitaratuko da (Museoaren webgunea: [www.museomaritimobilbao.eus](http://www.museomaritimobilbao.eus)), esleipendunaren izena eta esleipenaren zenbatekoa aditzera emanda.

## 11. KONTRATUA FORMALIZATZEA

Dagokien baldintza-agirian, halakoa dagoenean, dagoeneko jasota egon ezean, Museoak egiten dituen eta jarraibide hauen azpian dauden kontratuek halabeharrez honako aipamen hauek jaso beharko dituzte:

- a) Alderdien identifikazioa.
- b) Sinatzaileek kontratua izenpetzeko gaitasunaren egiaztapena.
- c) Kontratuaren xedearen definizioa.
- d) Kontratuari aplikagarria zaion legediaren erreferentzia.
- e) Kontratua osatzen duten agirien zerrenda.
- f) Prezio zehatza edo hura zehazteko era.
- g) Kontratuaren iraupena edo gauzatzen hasteko eta bukatzeko kalkulatzeko diren datak, bai eta luzapena edo luzapenak ere, halakorik aurreikusten baldin bada.
- h) Prestazioak hartu, eman eta onartzeko baldintzak.
- i) Ordaintzeko baldintzak.
- j) Kontratua suntsiaraz daitekeen kasuak.

Oro har, kontratua formalizatuko da hamar egun naturaleko gehieneko epean, enpresa kontratista hautatzen denetik zenbatzen hasita, dagozkion baldintza-agiri edo eskaintzetan beste epe bat zehaztu ezean.

Kontratua formalizatuz adieraziko da Museoaren adostasuna kontratuarekin, eta, horrekin, kontratua burututzat joko da.

## 12.- INDARREAN SARTZEA

Patronatuak onartu ondoren sartuko dira indarrean jarraibide hauek, eta jarraibideon onarpenaz geroztik abiarazten diren kontratazio-prozedurei izango zaizkie aplikagarriak.

## 13.- GEROAGO ALDATZEA

Jarraibide hauei edonoiz egin ahalko zaizkie aldaketak, gehikuntzak eta/edo argipenak, Museoko Patronatuaren erabakiz.



**INSTRUCCIONES INTERNAS DE CONTRATACIÓN DE LA “FUNDACION DEL MUSEO MARITIMO  
RIA DE BILBAO – BILBOKO ITSASADARRA ITSAS MUSEOA FUNDAZIOA”**

**Índice**

|  |    |
|--|----|
| I. DISPOSICIONES GENERALES .....   | 1  |
| 1.- ÁMBITO DE APLICACIÓN .....   | 1  |
| 2.- TIPOS DE CONTRATOS .....   | 2  |
| 3.- NATURALEZA Y RÉGIMEN JURÍDICO APLICABLE A LOS CONTRATOS REGULADOS EN LAS IIC ..... | 2  |
| 4.- PARTES EN EL CONTRATO .....  | 2  |
| 4.1. ÓRGANOS DE CONTRATACIÓN .....   | 2  |
| 4.2. MESA DE CONTRATACION.....   | 2  |
| 4.3. CAPACIDAD DE LA EMPRESA CONTRATISTA .....   | 3  |
| 5.- GARANTÍAS EXIGIBLES .....  | 3  |
| II. CONTRATOS A ADJUDICAR POR EL MUSEO.....  | 3  |
| 6.- PRINCIPIOS GENERALES DE CONTRATACIÓN.....  | 3  |
| 7.- PERFIL DEL CONTRATANTE.....  | 5  |
| 8.- NORMAS COMUNES A LOS PROCEDIMIENTOS DE CONTRATACIÓN A TRAMITAR POR EL MUSEO.....   | 6  |
| 8.1.- Precio del Contrato .....  | 6  |
| 8.2.- Pago del precio del Contrato.....  | 6  |
| 8.3.- Duración del Contrato.....   | 6  |
| 8.4.- Obligaciones del Museo.....  | 7  |
| 8.5.- Obligaciones de la empresa contratista.....                                      | 7  |
| 8.6.- Modificación del contrato.....   | 10 |
| 9. PROCEDIMIENTOS DE CONTRATACIÓN.....   | 11 |
| 9.1.- umbrales de aplicación a los contratos del Museo.....                            | 11 |
| 9.2 Adjudicación directa.....  | 12 |
| 9.3 Procedimiento restringido.....   | 12 |
| 9.4 Procedimiento abierto.....   | 13 |
| 9.5 Procedimiento negociado.....   | 14 |
| 10. SELECCIÓN DE LA EMPRESA CONTRATISTA .....  | 15 |
| 11. FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO .....   | 15 |
| 12.- ENTRADA EN VIGOR.....   | 16 |
| 13.- MODIFICACIONES POSTERIORES .....  | 16 |

**I. DISPOSICIONES GENERALES**

**1.- ÁMBITO DE APLICACIÓN**

Las presentes Instrucciones se aplicarán a todos los contratos onerosos que el Museo celebre con terceros, sin perjuicio de lo que puedan disponer los pliegos que para cada contrato en particular se elabore.

Estarán excluidos de la aplicación de estas Instrucciones los contratos y convenios de colaboración a celebrar con entidades o instituciones privadas que tengan por objeto la realización de una determinada actividad.

## 2.- TIPOS DE CONTRATOS

- Contratos de obras, entendiéndose por tales aquellos que tienen por objeto uno la ejecución de una obra, aislada o conjuntamente con la redacción del proyecto;
- Contratos de suministro, entendiéndose por tales los que tienen por objeto la adquisición, el arrendamiento financiero, o el arrendamiento, con o sin opción de compra, de productos o bienes muebles;
- Contratos de servicios, entendiéndose por tales aquellos cuyo objeto son prestaciones de hacer consistentes en el desarrollo de una actividad o dirigidas a la obtención de un resultado distinto de una obra o suministro

## 3.- NATURALEZA Y RÉGIMEN JURÍDICO APLICABLE A LOS CONTRATOS REGULADOS EN LAS IIC

Los contratos celebrados por el Museo tienen en todo caso consideración de contratos privados.

## 4.- PARTES EN EL CONTRATO

### 4.1. ÓRGANOS DE CONTRATACIÓN

Los órganos de contratación se determinarán de la siguiente forma:

1. Contratos de Servicios y suministros:

| IMPORTE               | ORGANO DE CONTRATACIÓN  |
|-----------------------|-------------------------|
| hasta 50.000 €        | Dirección               |
| 50.001 €– 100.000 €   | Dirección / Presidencia |
| a partir de 100.001 € | Patronato               |

2. Contratos de Obras:

